PLIEGO DE CONDICIONES PARA LA ADJUDICACIÓN DE VIVIENDAS EN RONTEGI

Mayo 2011

PRIMERO: CONDICIONES GENERALES

1. Podrán solicitar vivienda de protección local, a promover por Eretza S.A en la UE12 Rontegi, aquellas personas físicas o unidades convivenciales, en quienes concurran los requisitos establecidos en la Ordenanza de Viviendas de Protección Local, aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de Barakaldo el 18 de Febrero de 2005, y en todo caso:

a) Que la(s) persona(s) solicitante(s) sean mayores de edad en la fecha de apertura del plazo de inscripción de este sorteo.
b) Que a la apertura del plazo de inscripción al sorteo al menos una de las personas solicitantes esté empadronada en el municipio de Barakaldo, o lleve trabajando en empresa radicada en Barakaldo al menos 24 meses.
c) Que ninguno de los miembros de la unidad convivencial sea propietario de vivienda en los últimos dos años anteriores a la apertura de plazo de inscripción.
Se considera unidad convivencial, la compuesta por dos o más personas, unidas por matrimonio u otra forma de relación permanente análoga a la conyugal, y/o parentesco de consanguinidad hasta de 3º grado, y por afinidad hasta 2º grado, que residan o vayan a residir en el mismo hogar.
d) Que dispongan de ingresos suficientes para hacer frente al pago del precio de la vivienda y anejos.

2. Podrán considerarse excepciones a la condición de carencia de vivienda:

a) La participación de alguno de los miembros de la unidad convivencial como copropietario de otra vivienda, por cualquier título, y sin constituir residencia habitual. En este caso, se deberá acreditar la enajenación de su cuota de participación con anterioridad a la escrituración de la nueva vivienda.
b) La titularidad de otra vivienda que tenga la consideración de segunda residencia, se acredite que no está sometida a un Régimen de Vivienda Protegida, y se certifique mediante Tasación Oficial que su valor de mercado es, al menos, 1/3 menor que la vivienda que se pretende adquirir.
c) Cuando la participación en la propiedad de una vivienda sea inferior al 50% o, siendo igual o superior a este porcentaje, exista resolución judicial que impida el uso por el solicitante.
d) Cuando en la unidad convivencial exista algún miembro con minusvalía certificada por administración competente y el edificio donde tiene fijada su residencia habitual no reúna condiciones relativas a accesibilidad y existencia de aparatos elevadores.
e) Cuando en la unidad convivencial exista algún miembro mayor de 70 años y el edificio donde tiene fijada su residencia habitual no reúna condicione relativas a accesibilidad y existencia de aparatos elevadores.

En los supuestos de las letras d) y e), será obligatorio otorgar documento de cesión de la vivienda de su propiedad a favor del Ayuntamiento, para posterior adjudicación de la misma a favor de terceros por el valor que se tase por el Ayuntamiento, y en todo caso a un precio máximo equivalente al de multiplicar su superficie útil por el módulo vigente de VPO.

3. Los solicitantes de viviendas en esta promoción, deberán acreditar cumplir con los requisitos exigidos en el presente Pliego de Adjudicación de Viviendas, desde el momento de la solicitud hasta la firma de la escritura pública de compra-venta.

4.- Previo al sorteo, Eretza, S.A. podrá establecer una reserva de viviendas destinada a satisfacer las obligaciones de realojo que se deriven de expedientes de gestión urbanística.

SEGUNDO: GRUPOS ESPECIALES

Minusválidos en edificios con problemas de accesibilidad o carencia de ascensor situados en el término municipal de Barakaldo: ***9 viviendas adaptadas***.

Podrán solicitar vivienda adaptada aquellas personas que además de cumplir las condiciones generales anteriormente descritas (con excepción del punto a), acrediten la condición de minusválido, dando preferencia a aquellas minusvalías que precisen para los desplazamientos la utilización de uno de los siguientes medios y estableciendo la siguiente escala de preferencia:

1º Camilla
2º Silla de Ruedas
3º Los que acrediten el mayor grado de minusvalía motriz, de acuerdo con la normativa vigente.

En caso de que el solicitante minusválido fuese menor de edad, deberán realizar la solicitud quien ostente la condición de tutor legal, y se deberá también acreditar tanto la existencia de una persona minusválida en la unidad convivencial, como la inadecuación de la vivienda en que se halle empadronada la persona minusválida.

Caso de que por circunstancias ajenas a la promoción, alguna vivienda adaptada quedara sin adjudicatario-minusválido de movilidad reducida tras el sorteo, la misma se adjudicará por riguroso orden de la lista de espera, confeccionada mediante sorteo.

TERCERO: SOLICITUDES

a) Las solicitudes deberán presentarse en las oficinas de Eretza, S.A., desde el 23 de Mayo al 24 de Junio de 2011 (ambos inclusive)
b) La solicitud puede presentarse a título individual por personas solteras o separadas legalmente con sentencia firme. En el caso de unidades convivenciales, la solicitud debe presentarse de forma conjunta.
El contrato de compraventa y la escritura pública de compraventa, se suscribirán a favor de las personas que figuren como solicitantes en la solicitud.
Todos los integrantes de la unidad convivencial mayores de edad deberán ser cotitulares de la vivienda, con excepción de los descendientes en línea directa.
c) No podrá presentarse más de una solicitud por persona. En caso contrario, y en el supuesto de que una de las solicitudes fuese individual y la otra conjunta, se tendrá por presentada la conjunta.

Los solicitantes de vivienda tendrán la obligación de comunicar a Eretza S.A., cualquier modificación de los datos consignados en la solicitud en el plazo máximo de 15 días hábiles desde que se produzca dicha circunstancia. La falta de comunicación de las aludidas modificaciones podrá dar lugar a la desestimación de la solicitud.

RONTEGI-ko TOKIKO BABES ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO BALDINTZA AGIRIA

Maitzak 2011

LEHENIK: BALDINTZA OROKORRAK

1.- 2005eko otsailaren 18ko Barakaldoko udal osoko bilkurak onartutako Tokiko Babeseko Etxebizitzen Ordenantzan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek edo bizikidetza-unitateek eskatu ahal izango dituzte UE-12 Rontegi unitatean Eretza, SAk eta sustatuko dituzten tokiko babeseko etxebizitzak. Edonola ere, baldintza hauek bete beharko dituzte etxebizitza horiek eskatu ahal izateko:

a) Zozketan izena emateko epea zabaltzen den egunean, eskatzaileek adinez nagusi izan beharko dute.
b) Zozketan izena emateko epea zabaltzean eskatzaileetako batek, gutxienez, Barakaldoko udalerrian egon beharko du erroldatuta, edo gutxienez 24 hilabete eman beharko du Barakaldoko enpresa batean lanean.
c) Bizikidetza-unitateko kideetako bat bera ere ezin izango da etxebizitza baten jabe izan izena emateko epea zabaldu aurreko bi urteetan.
Bizikidetza-unitatea izango da etxe berean bizi diren edo biziko diren ezkontzaz edo antzeko beste harreman iraunkorreko modu batez lotutako bi pertsonek edo gehiagok osatutako unitatea, eta/edo 3. mailara arteko odol-ahaidetasunez eta 2. mailara arteko ezkontza bidezko ahaidetasunez lotutako bi pertsonek edo gehiagok osatutakoa.
d) Etxebizitzaren eta eranskinen prezioa ordaintzeko behar besteko diru-sarrera izan beharko dute.

2.- Etxebizitza gabeziarako salbuespenak izango dira:

a) Bizikidetza-unitateko kideetako bat beste etxebizitza bateko jabekide izatea, edozein titulu bidez, eta etxebizitza hori ohiko bizilekua ez bada. Kasu horretan, etxebizitza berria eskrituratu aurretik, bere partaidetza-kuota besterendu dela egiaztatu beharko da.
b) Bigarren bizileku gisa jotzen den beste etxebizitza baten titulartasuna, baldin eta etxebizitza babestu baten erregimenean ez dagoela egiaztatzen bada, eta haren merkatuko balioa erosi nahi den etxebizitzaren balioaren 1/3 txikiagoa dela, gutxienez, ziurtatzen bada tasazio ofizial bidez.
c) Etxebizitza baten jabetzako partaidetza % 50etik beherakoa izatea, edo, ehuneko horren berdina edo handiagoa izanik, ebazpen judizial baten ondorioz eskatzaileak etxebizitza hori erabili ezin izatea.
d) Bizikidetza-unitateko kide batek administrazio eskudunak ziurtatutako minusbaliotasuna izatea eta ohiko bizilekuak irisgarritasunaren arloko baldintzak ez betetzea eta goragailurik ez edukitzea.
e) Bizikidetza-unitatean 70 urte baino gehiagoko pertsona bat egotea eta ohiko bizilekuak irisgarritasunaren arloko baldintzak ez betetzea eta goragailurik ez edukitzea.

d) eta e) letren kasuan, norberaren jabetzako etxebizitza Udalari lagatzen zaiola jasotzen duen dokumentua eman beharko da nahitaez. Gero, Udalak hirugarren batzuei esleitu ahal izango die etxebizitza hori, Udalak berak tasatzen duen balioan eta, nolanahi ere, etxebizitzaren azalera erabilgarria babes ofizialeko etxebizitzetarako indarrean dagoen moduluagatik biderkatzearen gehieneko prezio baliokidean.

3.- Baldintza-agiri honetan etxebizitzak esleitzeko ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute sustapen honetan etxebizitza eskatzen dutenek. Eskaera egiten den unetik salerosketako eskritura publikoa sinatzen den arteko epea dute hori egiteko.

4. Zozketa egin aurretik, Eretzak etxebizitza kopuru jakin bat gorde ahal izango du, hirigintza-kudeaketarako espedienteen ondorioz ostatatu betebeharrak kitatzeko.

BIGARREN: MULTZO BEREZIAK

Sustapen honetarako BERARIAZKO erreserba hau ezarri da:

Irisgarritasun-arazoak dituzten edo igogailurik ez duten Barakaldoko udalerriko eraikinetan bizi diren minusbaliatuak: 9 etxebizitza egokitu.

Etxebizitza egokitua eskatu ahal izango dute lehentxeago aditzera emandako baldintza orokorrak betetzeaz gain (a puntuaren salbuespenarekin), minusbaliatuak direla egiaztatzen dutenek. Nolanahi ere, lehentasuna izango dute joan-etorrietarako honako bitarteko hauetako baten laguntza behar duten minusbaliotasunek, lehentasun-eskala honi jarraituz:

1.- Ohatila.
2.- Gurpil-aulkia.
3.- Mugikortasun-minusbaliotasun mailarik handiena egiaztatzen dutenek, betiere indarrean dagoen araudiaren arabera.

Eskatzaile minusbaliatua adinez txikia bada, haren legezko tutoreak egin beharko du eskaera, eta bizikidetza-unitatean pertsona minusbaliatu bat dagoela ez ezik, pertsona minusbaliatua erroldatuta dagoen etxebizitza desegokia dela ere egiaztatu beharko da.

Sustapenaz kanpoko zirkunstantzien ondorioz, zozketaren ondoren etxebizitza egokituren bat mugikortasun murriztua duen esleipendun minusbaliatu gabe geratzen bada, zozketa bidez osatutako itxaron-zerrendari zorroztasunez jarraituta esleituko da etxebizitza hori.

HIRUGARREN: ESKABIDEAK

a) Eskabideak Eretza, SAren bulegoetan eman beharko dira. Horretarako, 2011eko Maitzaeren 23tik Ekainaren 24rako epea emango da. (biak barne)
b) Eskabidea norberaren izenean aurkeztu ahal izango dute ezkongabeek edo epai irmo bidez legez banandutako pertsonek. Bizikidetza-unitateen kasuan, eskabidea batera aurkeztu beharko da.
Salerosketa-kontratua eta salerosketako eskritura publikoa eskabidean eskatzaile gisa ageri diren pertsonen alde izenpetuko da.
Bizikidetza-unitatean adinez nagusi diren kide guztiek izan beharko dute etxebizitzaren titularkide, zuzeneko lerroko ondorengo ahaideen kasuan izan ezik.
c) Pertsona bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du. Hala egin ezean, eta eskabideetako bat norbanakoa bada eta bestea baterakoa, batera aurkeztutakoa soilik hartuko da aintzat.

Eskabidean jasotako datuetako edozein aldatzen bada, etxebizitzen eskatzaileek Eretza, SAri jakinarazi beharko diote aldaketa hori, eta zirkunstantzia hori gertatu eta hamabost laneguneko gehieneko epea izango dute aldaketa jakinarazteko. Aldaketa horiek ez jakinarazteak eskabidea ezestea eragin dezake.

CUARTO: ACREDITACIÓN DE LAS CONDICIONES

1. Documentación a presentar por TODOS los solicitantes de vivienda que deseen participar en el procedimiento de adjudicación de viviendas en la UE12 Rontegi:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad (D.N.I.)
b) La carencia de vivienda se acreditará mediante presentación de certificación negativa de bienes inmuebles expedida por Hacienda Foral de Bizkaia referida al territorio de Bizkaia y al resto del Estado.
c) La minusvalía se acreditará mediante certificación expedida por el Dpto. de Bienestar Social de la Diputación Foral de Bizkaia, en el que se recogerá no sólo el grado de minusvalía motriz, sino también una descripción de la misma.
d) El incumplimiento de las condiciones de accesibilidad y existencia de aparatos elevadores en la residencia habitual de minusválidos, se verificará por técnico de Eretza, S.A.
e) La disposición de ingresos suficientes se acreditará mediante la aportación de certificación bancaria de solvencia financiera para la concesión de crédito hipotecario suficiente, o mediante la aportación de documento acreditativo de la disposición del precio de la vivienda.

2. Así mismo, Eretza S.A. solicitará al padrón municipal del Ayuntamiento de Barakaldo el certificado de empadronamiento en el municipio de cada uno de los solicitantes a efectos de acreditar su antigüedad.
En su lugar, los solicitantes de vivienda con al menos 24 meses trabajados en empresas del municipio, deberán aportar la vida laboral expedida por la Seguridad Social.

QUINTO: ADJUDICACIÓN DE VIVIENDAS

1. Presentadas las solicitudes, Eretza S.A. procederá a seleccionar a aquellos solicitantes de VPL que cumplan con los requisitos exigidos.
Analizada la documentación acreditativa de los requisitos, se publicará la relación de solicitudes que requieran subsanación en el tablón de anuncios de las oficinas de Eretza, S.A así como la página web de Eretza, con indicación del requisito a cumplimentar o la documentación a incorporar a la solicitud, y concediéndose un plazo de 10 días hábiles desde su publicación para efectuar subsanaciones.
Si transcurrido dicho plazo el requisito no se ha cumplimentado o la documentación requerida no ha sido aportada, o bien, si de la misma se deduce falsedad en los datos o incumplimiento de las condiciones y requisitos establecidos, Eretza S.A. denegará la admisión a trámite de dicha solicitud.

2. La relación de personas admitidas para tomar parte en el sorteo de las viviendas (clasificándolas conforme a los cupos definidos) se expondrá al público en el tablón de anuncios de las oficinas de Eretza S.A. y en su página web (www.eretza.com), indicándose así mismo, el lugar, fecha y hora de celebración del sorteo.

3. Previo al sorteo, se facilitará al Notario un listado en el que se identifique a cada solicitud con uno o dos números en función de las siguientes circunstancias:
- Cada solicitud individual llevará aparejado un número.
- Las solicitudes conjuntas llevarán aparejados dos números cuando ambos solicitantes cumplan todos y cada uno de los requisitos exigidos en el presente Pliego.
- Las solicitudes conjuntas llevarán aparejados un número cuando ambos solicitantes NO cumplan todos y cada uno de los requisitos exigidos en el presente Pliego.

4. El resultado del sorteo se notificará individualmente cada uno de los adjudicatarios mediante carta certificada enviada al domicilio que figure en la solicitud o en el escrito de modificación posterior, y se publicará en el tablón de anuncios de las oficinas de Eretza S.A y en su página web.
En caso de imposibilidad de notificación en su domicilio, se entenderá cumplido este trámite con la publicación realizada en el tablón de anuncios y en la página web.

5. En compromiso de adquisición de las futuras viviendas, los adjudicatarios del sorteo deberán formalizar contrato de arras penitenciales con la Sociedad de Gestión Urbanística Eretza, S.A. en cuyo acto deberán justificar el abono de 3.000 €, con los efectos previstos en el artículo 1.454 del Código Civil.

6.En caso de renuncia, baja o incumplimiento de las condiciones de adjudicación, se designará nuevo adjudicatario por riguroso orden de la lista de espera, confeccionada mediante sorteo.
La lista de espera la integrarán las solicitudes de aquellos que no resulten adjudicatarios y tendrá una vigencia de cinco (5) años a contar desde el momento en que hayan sido adjudicadas todas las viviendas de la promoción.

SEXTO: ENTREGA DE CANTIDADES A CUENTA DEL PRECIO

En concepto de cantidades a cuenta y previo cumplimiento de los requisitos establecidos en el presente Pliego y en la Ordenanza reguladora de VPL en Barakaldo, Eretza SA podrá exigir a los adquirientes de las viviendas, importes que sumados a los 3.000 € (arras penitenciales) no superen el 20% del precio de la vivienda y del 40% del precio de sus anejos, en cualquier momento desde la notificación de la adjudicación hasta la escrituración de la compraventa, no pudiendo solicitar importes superiores al coste de las obras efectivamente ejecutadas, y debiendo aportar aval bancario de las cantidades exigidas.

SEPTIMO: INCUMPLIMIENTO DE LAS CONDICIONES

El incumplimento por parte de los solicitantes de cualquiera de las condiciones a que se refieren las presentes Bases y la Ordenanza de viviendas de protección local, el incumplimiento de las condiciones de pago establecidas, la no concesión del préstamo por la Entidad Financiera, y la resolución del contrato, dará lugar, salvo que exista causa justificada, a la rescisión del contrato y nueva adjudicación de la vivienda entre las solicitudes integrantes de la lista de espera, perdiendo el adjudicatario en beneficio de Eretza, y en concepto de penalización, el 20% de las cantidades que tenga hasta ese momento pagadas a cuenta del precio, así como el importe íntegro de las cuotas de IVA satisfechas, además de las que pudieran corresponder en virtud del Contrato de Arras.

LAUGARREN: BALDINTZAK EGIAZTATZEA

1.- UE. 12 Rontegi unitateko etxebizitzak esleitzeko prozeduran parte hartu nahi duten etxebizitza-eskatzaile GUZTIEK aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
b) Etxebizitzaren gabezia egiaztatzeko, Bizkaiko Foru Ogasunak emandako ondasun higiezinik ezaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, Bizkaiko lurraldeari dagokionez eta Estatuaren gainerakoari dagokionez.
c) Minusbalioa Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak emandako ziurtagiri bidez egiaztatuko da. Ziurtagiri horrek mugikortasuneko minusbaliotasunaren maila ez ezik, minusbaliotasunaren deskribapena ere jaso beharko du.
d) Eretza, SAren teknikari batek egiaztatuko du minusbaliatuaren ohiko bizilekuak irisgarritasun-baldintzak betetzen ez dituela eta goragailurik ez duela
e) Behar adinako diru-sarrerak badirela egiaztatzera begira, behar besteko hipoteka-kreditua emateko finantza-kaudimenari buruzko banku-ziurtagiria eman beharko da, edo etxebizitzaren prezioaren kopurua izatearen egiaztagiria.

2.- Halaber, Eretza, SAk Barakaldoko Udalaren udal-erroldari eskatuko dio eskatzaileetako bakoitza udalerrian erroldatuta dagoela jasoko duen ziurtagiria, antzinatasuna egiaztatzearren.
Bestalde, udalerriko enpresetan gutxienez 24 hilabetez lan egin duten eskatzaileek Gizarte Segurantzak emandako **lan-bizitzaren agiria** eman beharko dute.

BOSGARREN: ETXEBIZITZAK ESLEITZEA.

1.- Eskabideak aurkeztuta, Eretza, SAk eskatutako baldintzak betetzen dituzten tokiko babeseko etxebizitzen eskatzaileak hautatuko dituzte.

Baldintzak egiaztatzen dituen dokumentazioa aztertuta, eta zozketan izena emateko epea amaitu eta, zuzendu behar diren eskabideen zerrenda emango da argitara Eretza, SAren bulegoko iragarki-oholean eta Eretza, SAren web-orrian. Zerrenda horretan, eskabideari gaineratu beharreko dokumentazioa edo osatu beharreko baldintza emango da aditzera, eta argitaratzen denetik 10 laneguneko epea izango da zuzenketa horiek egiteko.

Epe hori igaro denean, eskakizuna bete ez bada edo eskatzen den dokumentazioa gaineratu ez bada, edo dokumentazioan datuak faltsuak direla edo ezarritako baldintzak eta eskakizunak betetzen ez direla ondorioztatzen bada, Eretza, SAk ez dute eskabide hori izapidetzea onartuko.

2.- Etxebizitzen zozketan parte hartzeko onartutako pertsonen zerrenda (definitutako kupoen arabera sailkatuta) Eretza, SAren bulegoetako iragarki-oholean eta Eretza, SAren web-orrian emango da argitara. Era berean, zozketa zer lekutan, egunetan eta ordutan egingo den ere emango da aditzera.

3.- Zozketak esleipendun bakoitzari esleitutako etxebizitza zehatza ezarriko du. Horretarako, eta zozketaren aurretik, eskabide bakoitza zenbaki batekin edo birekin identifikatuko duen zerrenda emango zaio notarioari. Honako zirkunstantzia hauen arabera izango dute eskabideek zenbaki bat edo bi:
- Norbanako eskabide bakoitzak zenbaki bat izango du.
- Baterako eskabideek bi zenbaki izango dituzte, baldin eta bi eskatzaileek baldintza-agiri honetan eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen badituzte.
- Baterako eskabideek zenbaki bakarra izango dute, baldin eta bi eskatzaileek baldintza-agiri honetan eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen EZ badituzte.

4.-Zozketaren emaitza banan-banan jakinaraziko zaie esleipendunei eskabidean jasoarazitako helbidera, edo ondorengo aldaketa-idatzian jasoarazitako helbidera, igorriko den gutun ziurtatu bidez. Eretza, SAren bulegoetako iragarki-oholean eta Eretza, SAren eta web-orrian ere emango da argitara.
Jakinarazpena helbide horretan egitea ezinezkoa bada, izapide hori betetzat joko da iragarki-oholean eta web-orrietan zozketaren emaitza argitara ematearekin.

5.- Etorkizuneko etxebizitzak erosteko konpromiso gisa, zozketako esleipendunek atzera egitearen erresen kontratua egin beharko dute Sociedad de Gestión Urbanística Eretza, SArekin. Egintza horretan, 3.000 €-ko ordainketa justifikatu beharko dute, Kode Zibilaren 1.454. artikuluan aurreikusten diren ondorioekin.

6.- Esleipen-baldintzak betetzen ez badira, uko egiten bada edo baja ematen bada, beste esleipendun bat izendatuko da zozketa bidez osatutako itxaron-zerrendaren ordenari zorroztasunez jarraituta.
Itxaron-zerrenda esleipendun izan ez direnek osatuko dute, eta zerrenda horrek bost (5) urteko indarraldia izango du, sustapeneko etxebizitza guztiak esleitu diren unetik hasita.

SEIGARREN: PREZIOAREN KONTURA EMAN BEHARREKO ZENBATEKOAK

Konturako zenbatekoen kontzeptupean, eta baldintza-agiri honetan eta Barakaldoko tokiko babeseko etxebizitzak arautzen dituen ordenantzan ezarritako baldintzak bete ondoren, Eretza, SAk zenbateko jakin batzuk eskatu ahal izango dizkiete etxebizitzak eskuratzen dituztenei. Zenbateko horiek, atzera egitearen erresen kontura jarritako 3000 €-ei gaineratuta, ez dute gaindituko etxebizitzaren prezioaren % 20a eta eranskinen prezioaren % 40a. Esleipena jakinarazten denetik salerosketa-eskritura egiten den arteko edozein unetan eskatu ahal izango zaizkie zenbateko horiek, eta ezin izango dira benetan gauzatutako obren kostua baino zenbateko handiagoak eskatu. Eskatzen zaizkien zenbatekoen banku-abala gaineratu beharko da.

ZAZPIGARREN: BALDINTZAK EZ BETETZEA

Eskatzaileek Oinarri hauetan eta tokiko babeseko etxebizitzen ordenantzan jasotzen diren baldintzetako edozein ez betetzeak, ezarritako ordainketa-baldintzak ez betetzeak, finantza-entitateak mailegua ez emateak, eta salerosketa-kontratua indargabetzeak kontratua hutsaltzea eragingo du –baldin eta kausa justifikaturik ez badago–. Hala gertatuz gero, itxaron-zerrendako beste eskatzaileetako bati esleituko zaio etxebizitza, eta eskatzaileak, penalizazio kontzeptupean, Eretza, SAren alde galduko du une horretara arte prezioaren kontura ordaindutako zenbatekoen % 20a, baita ordaindutako BEZaren kuoten zenbatekoa ere, Bahien Kontratuaren ondorioz dagozkien kantitateen gain.

OCTAVO: CLÁUSULA ADICIONAL

La adjudicación de vivienda implica también la adjudicación de una de las parcelas de garaje y uno de los camarotes incluidos en la promoción.

Todas las personas inscritas al sorteo de esta Promoción, conocen y aceptan expresamente y de forma voluntaria la existencia de una cláusula de tanteo y retrac to a favor de Eretza, S.A. o Ayuntamiento de Barakaldo, en los términos previstos en la Ordenanza Reguladora de V.P.L.

Para todo aquello no regulado en el presente Pliego, se atenderá a la Ordenanza de Vivienda de Protección Local aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de Barakaldo el 18 de Febrero del 2005.

ZORTZIGARRENA: KLAUSULA GEHIGARRIA

Etxebizitza esleitzeak sustapenean barnean hartzen diren garaje-partzeletako bat eta trastelekuetako bat esleitzea ere badakar.

Promozio honetako zozketarako izena eman duten pertsona guztiek Eretzaren edo Barakaldoko Udalaren aldeko atzera-eskuratze eta tanteo-eskubideak ezagutzen eta euren borondatez espresuki onartzen dituzte, Ordenantzak aurreikusitako baldintzetan.

Honako baldintza-agiri honetan arautzen ez den guztirako, Barakaldoko Udalaren Osoko Bilkurak 2005eko otsailaren 18an onartutako Tokiko Babeseko Etxebizitzen Ordenantzari jarraituko zaio.